



Euskadin, **URTERO** mota honetako **500 ISTRIPU** gertatzen dira, gutxi gorabehera.

Kasu gehienetan, eragindako lesioak **ARINAK** dira, baina **LARRIAK** ere izan daitezke.

IDENTIFIKATUTAKO KAUSA NAGUSIAK

- Mailetan **IRRISTATZEA** zoru irristakorra, zikinkeria, hezetasuna edo oinetako ez-segurua direla-eta (zola irristakorrak, etab.).
- **IKUSPEN TXARRA** argiztapen eskasagatik.
- **BINAKA** igo/jaistea mailak, **SALTOKA**, **PRESAKA** edo **ARRETARIK** jarri gabe.
- **DISEINUA** edo **FORMA** desegokiak: eskailera-mailak hegalean edo kontramailarik gabe, eskailera inklinatuegiak, estuak edo luzeak eskailera-bururik gabe, oinatz-zabaleraren aldaketa eskailera kiribiletan, **BARANDA** ahulak edo ez egotea (alde irekiren bat duten eskaileretan), **ESKUBANDARIK EZ**, ...
- **EZ HELTZEA** eskubandari edo ez begiratzea zoazen **MARTXAREN NORANZKOAN**.
- **ZAMA** astunak, handiak edo helduleku txarra dutenak edo ikuspena zailtzen dutenak eramatea.
- Igarotzea oztopatzen duten objektuak **SAIHESTEN** ahalegintzea.
- Eskailerak edo mailak **EGOERA TXARREAN**: arrasto higatuak, apurtuak, uniformeak ez direnak, motzegiak edo altuera ez uniformeko kontramailak (altuegiak edo baxuegiak).
- Faktore pertsonalak edo gehiegizko konfiantza.



PREBENTZIO-NEURRIAK

- Eskailerak eta eskailera-buruak **GARBI** eta **LEHOR** edukitzea. Zoru busti edo irristakorraren kasuan, **SEINALEZTATZEA**. Arrastoetan banda irristagaitzak jartzea. Oinetako irristagaitzak erabiltzea.
- Eskailera-aldeak behar bezala **ARGIZTATZEA**.
- Mailak **BANAN-BANAN** igo/jaistea, **SALTO EGIN GABE**, **KORRIKA EGIN GABE** eta **ARRETA JARRITA**.
- **DISEINU** egokia:
23-36 cm-ko maila eta 13-20 cm-ko kontramaila, zerbitzukoak ez badira.
Eskaileraren gutxieneko zabalera 1 m (55 cm zerbitzukoetan, gutxitan erabiltzen diren finkoak).
Eskailera-buruen arteko gehieneko altuera 3,7 m-koa izango da.
DEBEKATUTA daude eskailera kiribilak, zerbitzukoak ez badira.
Alde bat irekia duten 4 maila baino gehiagoko eskailerek **BARANDA** erresistenteak izango dituzte.
Itxiak badira, **ESKUBANDAK** izango dituzte alde batean, edo bietan, zabalera 1,2m-tik gorakoa bada.
- Igo/jaistean eskubandari **HELTZEA**. Beti **MARTXAREN** noranzkoan begiratzea.
- Ez eramatea **ZAMA** astunik, helduleku txarra duenik, ezta tamaina handiegirik ere, ikuspen ona izatea eragozten duenik.
- Eskaileretan **OBJEKTURIK EZ** egotea.
- Aldian-aldean, eskailera eta haren elementu guztiak berrikustea eta **EGOERA PERFEKTUAN** mantentzea. Gorabeherak **JAKINARAZTEKO**, kalteak antzemateko edo hobetzeko prozedura ezartzea.
- Aldian-aldean, eskaileren erabilera egokiari buruzko **KONTZIENTZIAZIO-JARDUERAK** edo -saioak (prestakuntza eta informazioa) egitea (hitzaldiak, kartelak).

